En el CECOPI se sitúa el Comité de Dirección junto al Consejo Asesor y el Gabinete de Información.

3.6.- PUESTOS DE MANDO AVANZADO (PMA).

Es la estructura organizada de trabajo de la Dirección del Plan, desde donde se dirigen y coordinan in situ los trabajos de los Grupos de Acción en la/s zona/s de atención de la emergencia por inundaciones, siempre bajo la dirección del Director del Plan.

El responsable máximo de este puesto de mando será el determinado por el Director del Plan.

En la fase de pre-emergencia y en la situación 0 de la fase de emergencia el Puesto de Mando Avanzado se ubicará en el CECOP. En las situaciones 1, 2 y 3 la ubicación del Puesto de Mando Avanzado de la emergencia dependerá de las características de las inundaciones en el ámbito del Plan, y la determinará el Director del Plan, a través del CECOP. De acuerdo con estas características podrá constituirse más de un Puesto de Mando Avanzado.

Del mismo modo, en función de la situación declarada y de las necesidades de intervención frente a las inundaciones el PMA puede estar formado por los jefes y responsables de los grupos de acción, técnicos de la Dirección de Atención de Emergencias y de aquellos organismos o entidades cuyas actuaciones sean decisivas para la consecución de los objetivos.

3.7.- GRUPOS DE ACCIÓN.

Son grupos organizados especializados, con los medios pertinentes que intervienen desde los primeros momentos en las zonas afectadas o que puedan resultar afectadas por las inundaciones, y ejecutan las acciones de protección, intervención, socorro y reparadoras previstas en el Plan de forma coordinada frente a la emergencia.

Constituyen la base para la organización de los grupos de acción los servicios operativos ordinarios comunes a todos los tipos de emergencias que contempla el Plan Territorial de Protección Civil de Euskadi.

Edozein administratziotako zerbitzu eta langileek, bai eta hiritarrek ere, oro har, zuzenean badihardute ukiturik dauden aldeetan edo arrisku aldeetan, orduan ekintza taldeen motetan sartuta jardungo dute; izan ere, taldeon egitura uholde planekoa da.

Planeko jarduketara taldeak honako hauek dira:

- Esku-hartze, salbamendu eta erreskateko taldea.
- Segurtasun eta ordenako taldea.
- Osasun taldea.
- Laguntza logistikorako taldea.
- Laguntza teknikoaren taldea.

Planaren eragiketen gaineko VI. kapituluan, uholdeen ziozko larrialdirako zehazturiko aldi eta egoeretik bakoitzeko zehazten da zein den eragin den egituraren zatia, bai eta zein erantzukizun eta ekintza dagozkien jarduketara talde hauei ere.

3.7.1.- Esku-hartze, salbamendu eta erreskateko taldea.

Talde honek esku hartzeko neurriak burutzen ditu; izan ere, neurriok uholde planaren eragingarritasunak arautzen ditu. Uholdeen ondoreak baztertu, txikitu edota kontrolatu nahi dituzten eragiketak dira (uhandiak, urtegi legezkoak, lurperak eta abar), ondoreok biztanle, ondasun eta azpiegiturei, batez ere, urak hustutzekoei, baitagokie.

Oinarrizko eginkizunak honako hauek dira:

- Uholdearen ondoreak kontrolatu, txikitu edota neutraltzea.
- Pertsona eta ondasunak bilatu, salbatu eta erreskatatzea.
- Beste taldeekin batera elkarlanean aritzea, biztanleei babes-neurriak hartzean.
- Ukiturik dauden aldeak aztertu eta ebaluatzea, bai eta uholdearekin loturiko arriskuak antzematea (lurperak, egituren anabasa etab.)
- Planaren zuzendaritzari albisteak ematea egin beharreko eragiketen arrisku, kalteen eta biderakortasunaren gainean.
- Behin-behineko eustarriak jasotzea, bai eta uren igarora saihestu edo zailtzen duten bestelako oztopoak ere.
- Presaka, eustarrietan edota babeseko bestelako obretan egindako kalteak konpontzea eta, behar izanez gero, izadiko edota ingurugiroko osagaie-tan egindakoak ere.
- Ubideetako gune larrietan oztopo eta butxaketak kentzea edota urak hustutzeko beste bide batzuk zabaltzea.
- Ukiturik dauden aldeak garbitu eta beraietako osasuna zaintzeko atazetan laguntza ematea.

Osakideak honako hauek dira:

- Foru aldundietako Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak, Aiarako SISZen Patzuergoa, eta Gasteiz, Bilbo eta Donostiako SISZak.

Los servicios y personal de cualquier administración, así como ciudadanos en general que operen directamente en las zonas afectadas o de riesgo actuarán integrados en los tipos de grupos de acción que se estructuran en el presente Plan de Inundaciones.

Los grupos de actuación del Plan son los siguientes:

- Grupo de Intervención, Salvamento y Rescate.
- Grupo de Seguridad y Orden.
- Grupo Sanitario.
- Grupo de Apoyo Logístico.
- Grupo de Apoyo Técnico.

En el capítulo VI de Operatividad del Plan se especifica para cada una de las fases y situaciones definidas para la emergencia por inundaciones, la parte de estructura activada y las responsabilidades y acciones que corresponden a estos Grupos de Actuación.

3.7.1.- Grupo de Intervención, Salvamento y Rescate.

Este grupo ejecuta todas las medidas de intervención que contempla la operatividad del Plan de Inundaciones. Son todas las operaciones que tienen por objeto eliminar, reducir y/o controlar los efectos que las inundaciones (riadas, embalsadas, desprendimientos y corrimientos de tierras, etc.) tienen sobre la población, los bienes y las infraestructuras, fundamentalmente las de desagüe.

Las funciones básicas son:

- Controlar, reducir o neutralizar los efectos de la inundación
- Búsqueda, salvamento y rescate de personas y bienes.
- Colaborar con los otros Grupos en la adopción de medidas de protección a la población.
- Reconocimiento y evaluación de las zonas afectadas y detección de riesgos asociados a la inundación (desprendimientos de tierras, colapso de estructuras, etc.).
- Informar a la dirección del Plan sobre el riesgo, los daños y la viabilidad de las operaciones a realizar.
- Levantamiento de diques provisionales y otros obstáculos que eviten o dificulten el paso de las aguas.
- Reparación de urgencia de los daños ocasionados en diques o en otras obras de protección y, en su caso, en elementos naturales o medioambientales.
- Eliminación de obstáculos y obstrucciones en puntos críticos de los cauces o apertura de vías alternativas de desagües.
- Colaboración en las labores de limpieza y saneo de las áreas afectadas.

Está formado por:

- Servicios de S.E.I.S. de las Diputaciones Forales, Consorcio S.E.I.S. de Aiala y S.E.I.S. de Vitoria, Bilbao y San Sebastián.

- Ertzaintzaren Brigada Mugikorra.
- Foru aldundietako herri lanetako zerbitzuak.
- Foru aldundietako ur obretako zerbitzuak.
- Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritza.
- Larrialdiei Aurre egiteko Zuzendaritza.

3.7.2.- Segurtasun taldea.

Talde honek du ardura, hiritarren segurtasuna uholdeek jotako aldeetan bermatzeko, bai eta trafikoa arautzeko eta biktimak zeintzuk diren identifikatzen laguntzeko ere.

Beraren eginkizunak, gutxienez, honako hauek dira:

- Hiritarren segurtasuna bermatzea.
- Ukituriko aldeetako sarrerak kontrolatu eta trafikoa arautzea.
- Ekintza taldeetako kideak alde horietara eroatea.
- Laguntasuna ematea, biztanleei eman beharreko gaztigu eta albisteak zabaltzeko.
- Uholdeak jasan ditzaketan aldeetatik edo arriskuko aldeetatik pertsonak ebakutzeko erraztasunak eman eta beraiek handik bizkor urrutiratzea.
- Ondasunak babestea, egintza bandaliko eta arpiilatzen aurka.
- Laguntza ematea, esku hartzen duen taldeak erreskate eta salbamendurako egiten dituen atzetan.

Segurtasun eta ordenako talde honen kideak honako hauek izango dira: Ertzaintzaren beraren eskuarteak, eta udaltzaingoen kideak eta estatuaren segurtasuneko kidego eta indarretakoak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Babesaren Planari esleiturik badaude (LABI).

3.7.3.- Osasun taldea.

Egoerak horretaratuta edo behartzen badu, eta larrialdiaren 1, 2 eta 3. egoeretan, osasun taldea eratuko da. Talde horrek, alde batetik, osasun laguntza ematen die uholdeen ondorioak jasaten dituztenei, eta beraiek egonkortu eta eroaten ditu osasun etxera; beste alde batetik, neurriak hartzen ditu, osasun publikoa kontrolatu eta horri dagozkion aurreneurriak hartzeko (uraren osasunaren ikuspegitik kontrolatzea eta abar).

Beraren eginkizun nagusiak honako hauek dira:

- Osasun laguntza ematea istripudun eta zauritutakoei.
- Zauritutakoak sailkatu, egonkortu eta ebakutzera, horretara behar badute.
- Ospitaleetan jendea hartzeko azpiegiturak antolatzea.
- Laguntasuna ematea, eskudun epai agintari eta polizi agintariei, gorpuk identifikatzea denaz bezanbatean, bai eta bestelako biktima eta ukitutakoak identifikatzea denaz bezanbatean ere.

- Brigada Móvil de la Ertzaintza.
- Servicios de Obras Públicas de las Diputaciones Forales.
- Servicios de Obras Hidráulicas de Diputaciones Forales.
- Dirección de Aguas de Gobierno Vasco.
- Dirección de Atención de Emergencias.

3.7.2.- Grupo de Seguridad.

Este grupo es el encargado de garantizar la seguridad ciudadana en las zonas afectadas por las inundaciones, así como regular el tráfico y colaborar en la identificación de víctimas.

Sus funciones son, al menos, las siguientes:

- Garantizar la seguridad ciudadana.
- Control de accesos y regulación del tráfico en las zonas afectadas.
- Conducción de los integrantes de los Grupos de Acción a las zonas indicadas.
- Cooperar en la difusión de los avisos e información a la población.
- Facilitar la evacuación y alejamiento urgente de las personas de las zonas inundables o en peligro.
- Protección de bienes ante posibles actos vandálicos y saqueos.
- Colaborar en las tareas de rescate y salvamento del grupo de intervención.

El grupo de seguridad y orden está constituido por los medios propios de la Ertzaintza y los procedentes de las Policías Locales y Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado asignados al Plan de Protección Civil de Euskadi (LABI).

3.7.3.- Grupo Sanitario.

Cuando la situación lo requiera o aconseje y siempre en las situaciones 1, 2 y 3 de la emergencia, se constituirá el Grupo Sanitario. Este grupo, por un lado, presta la asistencia sanitaria a los afectados por las consecuencias de las inundaciones y su estabilización y transporte a un centro hospitalario, y por otro adopta las medidas de control y prevención de la salud pública (control sanitario de agua, etc.)

Sus principales funciones son:

- Atención sanitaria de urgencia de accidentados y heridos.
- Clasificar, estabilizar y evacuar a los heridos que así lo requieran.
- Organizar las infraestructuras de recepción hospitalaria.
- Colaborar con las autoridades judiciales y policiales competentes en la identificación de cadáveres, así como de otras víctimas y afectados.

- Uholdeek jotako aldeetako osasun baldintzak ebaluatu eta kontrolatzea (epidemiologi arazoak kontrolatzea, jendea samaldaka txertatzea eta abar), eta agerian egon ez baina osasun publikoa jotzen duten arriskuak jagotea, normalkuntzaren aldirian.
- Ukiturik dauden biztanleei botikak hornitzea.
- Benetako egoeraren berri ematea planaren zuzendariari.

Osakideak honako hauek dira:

- Osakidetzako osasun laguntzako zerbitzuak (larrialdien lurralde unitatea), eta hitzarturik dauden beste erakunde batzuk, ukiturik dauden aldeetan jardungo dela ziurtatzeko.
- Larrialdietako osasun garraioaren zerbitzua (Osakidetza, Gurutze Gorria, DYA eta abar).
- Ospitale-laguntzako zentroak eta egunekoak.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren zerbitzuak.

3.7.4.- Laguntza logistikoaren taldea.

Talde honen eginkizuna hau da: beharrezko ekipamendu eta hornidurak hornitzea, ekintza taldeetarik gainerakoek egiten dituzten jardueretarako, uholdeen ziozko larrialdietan, eta uholdeen bilakaeraren ondorioz.

Talde honen jarduketa nagusien artean, honako hauek daude:

- a) uholdeek bakarturiko aldeei arreta egitea; lehenetik dauden transmisio sistemak osatuko dira unitate mugikorrek edo beste sistema batzuekin,
- b) Erregaien hornikuntza kudeatzea, bai eta premia biziko ekoizkinena eta garraiobideena, hala esku hartzen duten taldeentzat, nola ukiturik dauden biztanleentzat; horrezaz gainera, banaketa egiteko beharrezko diren zentroak ezartzea,
- c) Ukiturik dauden biztanleen larrialdi, hornikuntza eta garraioa kudeatzea; ebakuazioa egin behar denetan, berriz, bilguneak zehaztea,
- d) Ukiturik dauden biztanleei arreta egiteko beharrezko diren ekipamendu eta horniduren beharrezkoak neurtzea.

Talde honen osakideak honako hauek dira: Larrialdiak Koordinatzeko Zentroetako (SOS-DEI) taldeak; gizarte laguntzako udal zerbitzuak; Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuetako beste talde batzuk, eta atxikita izan eta jarduketa egitarauetan ezarritako dauden gainerako erakundeak (osasuna zaintzea, aterpe eta laguntza ematea, garraiatzea, transmisioa eta hornikuntza egitea, eta abar); izan ere, hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Babesaren Planak arautzen du (LABI).

3.7.5.- Laguntza teknikoaren taldea.

Talde honek, teknikaren ikuspegitik, aholkuak ematen dizkio planaren zuzendaritzari, beharrezko diren

- Evaluación y control de las condiciones sanitarias en las zonas afectadas por las inundaciones (control de brotes epidemiológicos, vacunaciones masivas, etc.) y vigilar los riesgos latentes que afecten a la salud pública, una en la fase de normalización.
- Suministro de medicinas a la población afectada.
- Informar de la situación real al Director del Plan.

Está formado por:

- Servicios de asistencia sanitaria procedentes de Osakidetza (Unidad Territorial de Emergencias) y otras instituciones convenidas, que aseguren su actuación en las zonas afectadas.
- Servicios de transporte sanitario urgente (Osakidetza, Cruz Roja, DYA, etc.).
- Centros asistenciales hospitalarios y de día.
- Servicios de Salud Pública del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

3.7.4.- Grupo de Apoyo Logístico.

Este grupo tiene como función la provisión de todos los equipamientos y suministros necesarios para las actividades desarrolladas por el resto de los grupos de acción en las emergencias por inundaciones y como consecuencia de la evolución de las mismas.

Entre sus principales actuaciones están:

- a) atender a las zonas aisladas por las inundaciones, completando los sistemas de transmisiones existentes con el uso de unidades móviles u otros sistemas,
- b) gestionar abastecimiento de carburantes, productos de primera necesidad, medios de transporte tanto para los grupos intervinientes como para la población afectada, estableciendo los centros de distribución necesarios,
- c) gestionar albergue de emergencia, abastecimiento y transporte de la población afectada, definiendo los puntos de reunión en caso de evacuación,
- d) evaluación de las necesidades de equipamientos y suministros necesarios para atender a la población afectada.

La composición de este grupo se nutre de los equipos integrados en los Centros de Coordinación de Emergencias SOS-DEI, así como los servicios municipales de asistencia social, incorporándose al mismo otros equipos procedentes de otros Departamentos de Gobierno Vasco y demás instituciones adheridos y previstas en los Programas de Actuación (Sanitario, Albergue y Asistencia, Transporte, Transmisiones, Abastecimiento, etc) que el Plan de Protección Civil de Euskadi (LABI) contempla.

3.7.5.- Grupo de Apoyo Técnico.

Este grupo asesora técnicamente a la Dirección del Plan sobre las medidas correctoras y de reparación ne-

neurri zuzengarri eta konpongarrien gainean, gertatutako kalteei edota gerta daitezkeenei aurre egiteko, bai eta beraiekin loturiko geologi jazoerei ere; horrezaz gain, aholkuak emango ditu, gertakariaren bilakaera eta aurreikuspenari buruz, eta funtsezko zerbitzuak berriz ere gaitzearen inguruan.

Horretarako, uholdeen ziozko larrialdi baten, gutxienez, ondoko jarduketa hauek egin behar dira:

- a) uholdeak jotako alde eta urtegiatarako neurri zuzengarriak proposatzea (ingeniaritza zibilekoak edo bestelakoak), bai uholdeen ondoreak kontrolatu edota gutxitzeko, bai funtsezko zerbitzuak berriz gaitzeko ere,
- b) neurri horiek ezartzeko, zein lan eta ekipamendu berezi diren beharrezkoak erabakitzea,
- c) planaren zuzendaritzari emaitza eta beharizanen berri ematea.
- d) planaren zuzendaritzari emaitza eta beharizanen berri ematea.

Osakideak honako hauek dira: Larrialdiei Aurre egiteko Zuzendaritzako teknikariak eta Uren Zuzendaritzako teknikariak; administrazio guztietako eta ingeniari zibileko eremuan berezituak diren enpresetako herri lan eta ur obretako teknikariak, ur arriskueta egoerak eta lurraren egongaitzasunaren kontrolatzeko; ingurugiro eta osasun publikoaren teknikariak, ingurugiroaren arloko gaixotasunak eta larrialdiko osasuna neurtzeko; bai eta beharrezkoesten diren enpresa publiko zein pribatuak ere (Energiaren Euskal Erakundea, IHOBE, gas bazkunak, elektrizitatekoak, urak hornitu eta arazteko partzuergo eta mankomunitateak, eta abar).

4.- ERAGIKETAK.

Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen ziozko Larrialdiko Plan Bereziaren eragiketarako hauek dira: planaren helburuak lortzeko sasoz eta leku egokian ezarritako ekintza, prozedura eta neurri guztiak (1.1). Ekintza eta estrategia horiek modu malguan ezartzea dakarte, uholdeen astuntasunaren arabera eta beraiekin loturiko jazoeren edura; eta hori guztia eragiketen eta antolaketaren ikuspegitik egitura guztiak abian jarri edota pizte horretan datza; egitura horiek kapitulu honetan daude ezarrita.

4.1.- ERAGITEKO EKINTZAK.

Planak arautzen ditu eragiteko ekintzak, planaren beraren antolaketara eta egiturako baliabide eta kide guztiek, III. kapituluaren adierazitakoek, egiteko; hasiera plana piztueran datza eta amaiera, berriz, larrialdiaren amaiera eta normalizazioan. Oinarrian, ondoko alderdi hauek dira haien ekintzak:

4.1.1.- Uholdeen ziozko aurreneurri, alerta eta alarmarako sistemak.

cesarias para hacer frente a los daños ocurridos o prevenibles de unas inundaciones o sus fenómenos geológicos asociados, sobre la evolución y previsión del suceso y sobre la rehabilitación de los servicios esenciales.

A tal fin en una emergencia por inundaciones le corresponden, al menos, las siguientes actuaciones:

- a) proponer medidas de carácter corrector en zonas inundadas y embalses (de ingeniería civil o de otro tipo), para controlar o aminorar los efectos de las inundaciones, así como para la rehabilitación de los servicios esenciales,
- b) decidir qué equipos especiales de trabajo y equipamiento son necesarios para la aplicación de tales medidas,
- c) seguimiento técnico del suceso y su evolución y de las acciones aplicadas,
- d) informar a la Dirección del Plan de los resultados y necesidades.

Está formado principalmente por Técnicos de la Dirección de Atención de Emergencias, y de la Dirección de Aguas (Servicio Vasco de Meteorología), técnicos precedentes de Obras Públicas y Obras Hidráulicas de todas las administraciones y de empresas especializadas en el campo de ingeniería civil para el control de situaciones de riesgos hidrológicos y de inestabilidades del terreno; técnicos de Medio Ambiente y Salud Pública para la evaluación de las afecciones medioambientales y sanitaria de la emergencia; así como de empresas públicas o privadas que se consideren necesarias (Ente Vasco de la Energía, IHOBE, compañías de gas, electricidad, consorcios y mancomunidades de abastecimiento y depuración de aguas, etc.).

4.- OPERATIVIDAD.

La operatividad del Plan Especial ante Inundaciones de la CAPV reúne el conjunto de acciones, procedimientos y medidas aplicadas en tiempo y lugar oportuno para la consecución de los objetivos del Plan (1.1). Implica una articulación flexible de estas acciones y estrategias, conforme a la gravedad de las inundaciones y sus fenómenos asociados, que se traduce en la puesta en marcha o activación de las distintas estructuras operativas y organizativas que se prevén en el presente capítulo.

4.1.- ACCIONES OPERATIVAS.

Las acciones operativas que contempla el Plan realizar por todos los recursos y miembros de la organización y estructura del mismo, referidos en el capítulo III, desde su activación hasta el final de la emergencia y normalización. Básicamente se concretan en los siguientes aspectos:

4.1.1.- Sistemas de Previsión, Alerta y de Alarma por inundaciones.

Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen ziozko Plan Bereziaren alerta eta alarmaren sistemen oinarri nagusiak hauek dira: aurreneurrien, meteorologia eta hidrologiaren sistemak, bai eta uharkek larrialdiaren gertaguneei buruz egiten dituzten gaztiguak ere. Horiek guztiak plan honen 2.4.3. atalean ageri dira. Informazio horiek (meteorologia, hidrologia, uharken egoera eta abarri buruzkoak) EKZ-EKBZn jasotzen dira, eta alde bitara bideratzen dira:

- a) Unean-unean, planaren zuzendaritzari datuen berri ematea, datuok uholdeen ziozko plan bereziaren piztueraren oinarri badira; bai eta larrialdiko egoeren adierazpena, eta gertakarien eta berriek ekar ditzaketen ondoreen ebaluazioa jakinaraztea, hasiera-hasieratik.
- b) Planaren zuzendaritzari bide ematea, zerbitzu eta baliabideak aurreneurri gisa prestatzeko, horiek larrialdian esku hartu behar dutenez gero; eta zerbitzu eta baliabideoi alertaren jakinarazpenak egitea, bai eta ukiturik dauden biztanleei ere.

4.1.1.1.- Uholdeen ziozko alerta.

Uholdeen ziozko alerta meteorologia txarraren gaztiguagatik etor daiteke, bai eta uraren jarraipenaren edota uharken joeren gaztiguagatik ere; bada, alerta hori eragiteko ekintza da, eta beraren helburua honako hau da: arreta eta jagotza egoera sortzea, alerta bera sortarazi duten inguruabarren gainean, eta berez daroa aurreneurriko atazak egitea, bizkor esku hartzeko beharrezko diren erantzun denborak laburtzeko.

Oro har, uholdeen garaiko alertak larrialdiaren aurreko aldiaren egotea dakar; izan ere, aldi hori dela eta, alerta hori ekintza taldeetako izaiki eta erakunde kideei eta gaztiguen menpeko aldeetako alkateei jakinarazten zaie. Abaguneak hartaraturik, eta planaren zuzendaritzaren aburuz, larrialdiaren aurreko aldiaren, alerta biztanleei jakinarazi ahal izango zaie, Informazio kabinetearen bitartez, plan honetan ezarritako gaztiguen sistemen edura (4.1.3. epigrafean adierazitakoen edura).

4.1.1.2.- Uholdeen ziozko alarma.

Uholdeen ziozko edota beraiekin loturiko jazoeren ziozko alarma eragiteko ekintza da; berak berehala eragiten die gaztigua hartzen dutenei, babes-neurriak hartzeko, iragarritako gertakaria dela-eta (ubideak gainezkatzea, in situ prezipitazioen ondoriozko urtegitratzeak, ibaibazterrak urez betetzea, lurperak eta abar). Ekintza taldeentzako da, beraiek berehala esku har dezaten (errepideak moztea, biztanleak ebakuatzea, ur obrak jagoeta eta abar), bai eta ukiturik dauden biztanleentzako ere; azken hauei kontsigna eta gomendioak egiten zaizkie eragiteko, etorri uste den gertakariaren mota eta larritasunaren arabera, eta plan honetan gaztiguak emateko ezarrita dagoen sistemaren edura (4.1.3).

4.1.2.- Uholdeen ziozko larrialdietan, pertsona eta ondasunak babesteko neurriak.

Babes-neurriak dira, plan berezi honetan ezarritako prozedura, jarduketak eta neurriak; horien helburua, berriz, hauxe da: uholdeen edota beraiekin loturiko geo-

Los sistemas de Alerta y Alarma del Plan Especial ante Inundaciones de Euskadi están principalmente basados en los sistemas de previsión, meteorológica e hidrológica, así como en los avisos que de sus escenarios de emergencia hagan las presas, especificados en el apartado 2.4.3 de este Plan. Estas informaciones (meteorológica, hidrológica, estado de presas, etc.) son recibidas en CECOP-CECOPI y son orientadas en una doble vertiente:

- a) dar a conocer, en todo momento, a la Dirección del Plan los datos que argumenten la activación del Plan Especial ante Inundaciones, la declaración de sus situaciones de emergencia y la evaluación de los sucesos y sus posibles consecuencias desde los primeros momentos.
- b) permitir a la Dirección del Plan la puesta en disposición preventiva de los servicios y recursos que hayan de intervenir en la emergencia y realizar las notificaciones de Alerta y Alarma a los mismos, así como a la población afectada.

4.1.1.1.- Alerta por inundaciones.

La Alerta por Inundaciones, derivada tanto de aviso de meteorología adversa como de un seguimiento hidrológico o del comportamiento de presas, es una acción operativa que pretende crear un estado de atención y vigilancia sobre las circunstancias que la provocan y lleva implícita las tareas de previsión con el fin de disminuir los tiempos de respuesta para una rápida intervención.

Normalmente la Alerta en Inundaciones supone estar en la fase de Preemergencia, por la cual se transmite dicha Alerta a los entes y organismos integrantes de los Grupos de Acción y Alcaldes de las zonas que abarquen los avisos. Coyunturalmente y a criterio de la Dirección del Plan, en la fase de Preemergencia la Alerta podrá ser transmitida a la población a través del Gabinete de Información, conforme a los sistemas de avisos previstos en el presente Plan (expresados en el epígrafe 4.1.3).

4.1.1.2.- Alarma por inundaciones.

La Alarma por Inundaciones o fenómenos adversos asociados es una acción operativa que induce inmediatamente a los que la reciben a tomar medidas de protección frente al suceso anunciado (desbordamiento de cauces, embalsamientos por precipitaciones in situ, anegamiento de riberas, corrimientos de tierras, etc). Se dirige a los Grupos de Acción para su inmediata intervención (cortes de carreteras, evacuación de población, vigilancia de obras hidráulicas, etc.) y a la población afectada con las consignas y recomendaciones de actuación que correspondan con el tipo y gravedad del suceso esperado, conforme al sistema de avisos previsto en el presente Plan (4.1.3).

4.1.2.- Medidas para la protección de personas y bienes en emergencias por inundaciones.

Se consideran medidas de protección los procedimientos, actuaciones y medios previstos en el presente Plan Especial, con el fin de evitar o atenuar las conse-

logi jazoeren ondorioak, hurbilekoak eta geroagokoak, saihestu edo arintzea, ukiturik dauden aldeetako biztanleentzat eta esku hartzen duten langileentzat, bai eta erkidegoaren oinarrizko ondasun eta zerbitzuetarako ere.

4.1.2.1.- Biztanleak babestea.

Biztanleak babesteko neurriak bitara biltzen dira: biztanleak aldez aurretik prestatzea, nork bere burua babesteko hartu behar dituen neurriei buruz edo, beraiei gaztigua eman edo neurri horiek abian jartzea, baldin eta aurreneurri gisa erabakitzen bada, biztanleak leku batera bildu behar direla edo beraiek dauden lekutik atera behar direla, uholdeen ziozko larrialdiak txarrera jotzen badu.

Aurreko neurriak berehala egin behar dira, eta hasieran tokian tokiko baliabideekin bakarrik burutu ahal dira, hau da, udalerrri bakoitzean daudenekin, kanpoko laguntza neurri arinean ematen den bitartean. Ildo horretatik, tokian-tokian jarduteko planek, 6. kapituluaren adieraziko baitira, neurriak izan behar dituzte, horrelako egoeretan jarduteko.

Planak ondoko neurri hauek hartzen ditu, biztanleak babesteko:

- Nork bere burua babesteko neurriak: biztanleek eurek gauza ditzaketen neurri errazak dira. VIII. eranskinean aholku eta gomendio orokorrak batu dira, plan berezia ezartzen den aldiaren zabaldu behar direnak.
- Leku batera biltzea: neurri hau biztanleak euren bizilekuetan, barrunbe edo bizitegi hurbiletan babestea da, noiz eta neurria hartuko dela iragaritzen den unean.
- Urrutiratu eta babestea: biztanleak leku arriskuetsuetatik leku ziurretara eroatea da; oro har, leku horiek ez daude urruti, eta bakoitza, bere eskuarteak erabiliz, aldatzen da leku batetik bestera. Sarrerak kontrolatu eta ukituriko aldeetan ordena zaintzea.
- Ebakuazioa: arrisku handieneko aldean dauden biztanleak handik urruti dauden aldeetara eroatea da. Behin betiko neurria da, eta bera bidezkoitzen da, baldin eta biztanleek jasan dezaketen arriskua handia bada.
- Hurre-hurreko arriskurik ez badago, udalerriko alkateak planaren zuzendariari proposatu ahal dio, SOS-DEIen bitartez, ebakuazioa burutzeko; orduan, ebakuazioa egiteko agindua plan bereziaren zuzendariak erabaki behar du. Kasu guztietan, alkateak koordinatuko du bere udalerriko ebakuazioa.
- Hurre-hurreko arriskua dela eta, ebakuazioa egiteko agindua udalerriko alkateak eman ahal izango du, edo plan bereziaren zuzendariak.

cuencias de las inundaciones o sus fenómenos geológicos asociados, inmediatas y diferidas, para la población y el personal interviniente en las zonas afectadas, así como para los bienes y los servicios básicos de la comunidad.

4.1.2.1.- Protección a la población.

Las medidas de protección para la población se concretan en la preparación previa de la misma mediante información sobre medidas de autoprotección, o bien, su aviso o puesta en marcha en caso de que preventivamente se decida el confinamiento o evacuación ante una posible evolución negativa de la emergencia por inundaciones.

Las acciones anteriores tienen carácter inmediato y sólo pueden ser llevadas a cabo en primera instancia con los recursos locales, es decir ubicados en el municipio, apoyados por un primer nivel de recursos externos. En este sentido los Planes de Actuación Local, indicados en el capítulo 6, deberán contener las medidas a adoptar en tales supuestos.

Las medidas de protección a la población que contempla el Plan son las siguientes:

- Medidas de autoprotección personal: son aquellas medidas sencillas que pueden ser llevadas a cabo por la propia población. En el anejo VIII se adjuntan consejos y recomendaciones generales que deberán divulgarse en la fase de implantación del Plan Especial.
- Confinamiento: esta medida consiste en el refugio de la población en sus propios domicilios, recintos o habitáculos próximos en el momento de anunciarse la adopción de la medida.
- Alejamiento y refugio: consiste en el traslado de la población desde posiciones expuestas a lugares seguros, generalmente poco distantes y utilizando sus propios medios. Control de accesos y mantenimiento del orden en áreas afectadas.
- Evacuación: consiste en el traslado de la población que se encuentra en la zona de mayor riesgo hacia zonas alejadas de la misma. Se trata de una medida definitiva, que se justifica únicamente si el peligro al que está expuesta la población es grande.
- Si no existe un peligro inminente, el alcalde del municipio puede proponer al Director del Plan, a través de SOS-Deiak, la evacuación, correspondiendo entonces la decisión de dar la orden de evacuación al Director del presente Plan Especial. En todos los casos, el alcalde coordinará la evacuación en su municipio.
- Ante una situación de peligro inminente, la orden para que se efectúe una evacuación podrá ser dada por el alcalde del municipio o por el director del plan Especial.

- Osasun laguntza: lehen mailakoa eta presaka eman beharrekoa, bai eta biztanleen osasuna kontrolatzeko ere (epidemien sorrerak, izurriteenak eta abar).
- Elikagaien eta ogiaren hornikuntza eta beraien osasun-kontrola.

4.1.2.2.- Laguntza eta sorospena emateko neurriak.

Laguntza eta sorospena emateko neurriak biztanleentzat dira, baldin eta berauek zuzenean uholdeek jota badaude eta euren osotasunerako arrisku larria badute. Berehala ezarri behar diren neurriak dira, eta beraiek gauzatzeko beharrezko baliabide eta eskuarteak berez eta berehalaxe higitzen dira; neurri horien artean, besteak beste, hauek daude:

- Bilaketa, erreskate eta salbamendua.
- Urak bakarturiko aldeetako ebakuazioa.
- Presaka eman beharreko osasun laguntza eta lehenengo sorospenak.
- Kalteak sailkatu, kontrolatu eta ebakutzeari laguntza emateko osasun eta gizartearen aldetik.
- Aterpe eta hornikuntza presaka ematea.

4.1.2.3.- Azpiegitura eta ondasunak babestea.

Larrialdien planetan edota nork bere burua babesteko planetan ezarrita dauden neurriak dira, eta neurri horien helburua azpiegitura, industria eta zentroak babestea da.

Oinarrian, babes-neurriak eta neurri konpongarriak ezarriko dira, erkidegoaren funtsezko ondasunei eta oinarritzko zerbitzuei begira, kultur intereseko ondasunen eretzean eta azpiegiturei dagozkenez, beraiek kaltea jasoz gero, bestelako arriskua sortarazten badute.

4.1.3.- Biztanleei gaztiguak eta informazioa ematea.

Biztanleei zabalkunde eta informazioa emateko kanpainak egiten dira uholdeen arriskuari buruz eta beraien larrialdiaren inguruan, planaren ezarpenean ezarrita baitaude (8. kapitulua); horiek ez ezik, plan bereziaren eragiketen barruan, lehenetsuneko ekintza da, uholdeen ziozko larrialdiak kudeatueran, biztanleei gaztiguak egitea. Gaztigu horiek eta informazioa egiteko, alerta mezua, alarma eta bete beharreko gomendioak ematen dira; bada, haiek funtsezko neurriak dira oinarritzko biztanleak babesteko, eta babesgabezia saihestuko da, ga-beziak benetako eta osoko informazioa falta izatea.

Biztanleei ematen zaien informazioa, edozelan ere, planaren zuzendaritzak emango du; izan ere, zuzendaritza horrek emango ditu Informazio kabineteak zabaldu beharreko mezuak, behin, Kontseilu aholkulariaren bitartez, hidrometeorologiaren aurreikuspen eta alertaren sistemak uharken egoerari buruz eta, oro har, larrialdiaren gainean informazioa gertatu eta galbatuta.

Gaztiguak emateko sistema horien helburua biztanleak alertan jartzea da, bai eta beraiei informazioa ematea, kasuan-kasuan komenigarriena den jarduketari buruz eta hartu behar diren babes-neurri nagusiak ezartzeari buruz: nork bere burua babesteko neurriak, leku batera biltzea, urrutiratzea, ebakutzeari eta abar.

- Asistencia sanitaria: Primaria y urgente, así como de control sanitario de la población (brotes de epidemias, plagas, etc.)

- Abastecimiento y control sanitario de alimentos y agua.

4.1.2.2.- Medidas de auxilio y socorro.

Las medidas de auxilio y socorro están dirigidas a la población directamente afectada por las inundaciones y con grave riesgo para su integridad. Son medidas de aplicación inminente y los recursos y medios necesarios para llevarlas a cabo son de movilización automática e inmediata, entre ellas están:

- Búsqueda, rescate y salvamento.
- Evacuación en zonas aisladas por el agua.
- Asistencia sanitaria de urgencia y primeros auxilios.
- Clasificación, control y evacuación de damnificados para asistencia sanitaria y social.
- Albergue y abastecimiento de emergencia.

4.1.2.3.- Protección de infraestructuras y bienes.

Incluyen todas aquellas medidas de protección contempladas en los planes de emergencias y/o autoprotección de aquellas infraestructuras, industrias y centros que de ellos dispongan.

Básicamente se aplicarán medidas protectoras y reparadoras a los bienes esenciales y servicios básicos de la comunidad, a bienes de interés cultural y a aquellas infraestructuras cuyo daño genere riesgo asociado.

4.1.3.- Avisos e información a la población.

Con independencia de las campañas de divulgación e información a la población que se realicen sobre el riesgo de inundaciones y su emergencia, previstas en la Implantación del Plan (capítulo 8), la operatividad del Plan Especial contempla como acción prioritaria en la gestión de las emergencias por inundaciones, los avisos a la población. Estos avisos e información, mediante mensaje de alerta, alarma, recomendaciones a seguir, constituyen una medida de protección a la población fundamental, evitando la desprotección que implica la falta de una información veraz y completa.

La información que se transmita a la población emanará, en todo caso, de la Dirección del Plan que tras elaborar y cribar la información del Sistema de Previsión y Alerta Hidrometeorológica, de los comunicados del estado de presas y de la emergencia en general, mediante su Consejo Asesor, emitirá los mensajes a difundir por el Gabinete de Información.

Estos sistemas de avisos tienen por finalidad alertar a la población e informarla sobre la actuación más conveniente en cada caso y sobre la aplicación de las principales acciones de protección que debe adoptar: medidas de autoprotección, confinamiento, alejamiento, evacuación, etc.

Biztanleei gaztiguak emateko planean ezarrita dau- den sistemak hauek dira:

a) Zuzeneko gaztiguak, tokia-tokian jarduteko pla- netan ezarritakoak.

Tokian tokiko megafoniaz egin ohi da; megafonia hori finkoa edota higikorra izan daiteke, eta udalerrie- tako ordenaren indar publikoek (udaltzainek) eta esku hartzen duen taldeko gainerako zerbitzuek eginda. Gaz- tigu horiek bide ematen dute, biztanleei informazioa zuzenean emateko, berehalaxe ezarri behar diren babes- neurrien gainean (urrutiratzea, ebakuatzea, leku bate- ra biltzea etab.).

b) Gaztiguak, gizarte komunikabideen bitartez.

Adierazi den bezala, zabaldu behar diren mezuak gi- zarte komunikabideei Informazio kabineteak ematen dizkie. Komunikabideok planaren zuzendariaren era- kunde laguntzaileak dira eta, Herri Babesari buruzko legeriaren arabera, nahitaez eman behar dute lagunta- suna, mezu horiek zabaltzeko.

Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Pla- nak (LABIk), beraren barruan uholdeen ziozko plan be- rezia dagoelarik, protokolo, hitzarmen edota akordioak sustatzen ditu telebista eta irrati-hedapeneko sozietate emakidadunekin egiteko; eta horrek bermatzen du biz- tanleei eman beharreko mezu eta gaztiguak gehiago za- balduko direla, alegia, uholdeen ziozko larrialdiaren egoeretan biztanleei zuzentzen zaizkiela.

Komunikabide horietarik (irrati eta telebistatik), biztanleei informazioa emango zaie, ezarpenean ezarri- tako hedapen kanpainen bitartez.

c) Beste izakunde eta erakunde batzuen bitartezko informazioa.

Izakunde eta erakundeek, informazioa emateko di- tutzen komunikabideen bidez, emango dute planaren zuzendaritzak, Informazio kabinetearen bidez, ematen duen informazioa.

4.1.4.- Uholdea edota urbolada kontrolatu eta neu- traltzea.

Urboladen ziozko uholdeek aurrera egiten badute, uholde horiek urtegiatara bildu behar dira eta hori de- fentsa eragingarria da, beraien azpiko uretako uholdeei begira; egin-eginean ere, aurreikuspen ona eginez ge- ro (euri oso bortitzak gertatu baino lehenago urtegiak hustutzea, arrora oso denbora laburrean biltzen baitira), uholdea eragingo lukeen urboladaren hidrograma bigundu liteke.

Edozelan ere, urboladak bideratu ahal badira ere, ur- tegietako segurtasun mailak kontrolatzea funtsezkoa da euri bortitz eta setatsuak direnetan, euren arriskua de- la eta; eta arrisku hori uharkarentzat berarentzat da, bai eta uretan behera sortaraz ditzaketen uholde mailak di- rela eta; horregatik, urtegiak bat-batean hustu behar izaten dira batzuetan, uharkaren segurtasuna ziurtatze- ko.

Los sistemas de avisos a la población que contempla el Plan son:

a) Avisos directos previstos en los Planes de Actua- ción Local.

Se realizan normalmente por megafonía local, fija y/o móvil a través de las fuerzas de orden público munici- pales (Policía local) y resto de los servicios del grupo de intervención. Estos avisos permiten informar direc- tamente a la población sobre las medidas de protec- ción de aplicación más inminentes (alejamiento, evacuación, confinamiento, etc).

b) Avisos a través de los medios de comunicación so- cial.

Como ya se ha indicado los mensajes a difundir son facilitados a los medios de comunicación social por el Gabinete de Información. Estos medios son entidades colaboradoras del Director del Plan que, de conformi- dad con la legislación de Protección Civil, tienen la obligación de colaborar en la difusión de los mencio- nados mensajes.

En este sentido, El Plan de Protección Civil de Eus- kadi (LABI), en el que se integra el presente Plan Es- pecial ante Inundaciones, promueve los protocolos, con- venios o acuerdos con las principales sociedades concesionarias de televisión y radiodifusión, lo que garanti- za la mayor difusión de los mensajes y avisos a la po- blación que en situaciones de emergencia por inunda- ciones se dirijan a la población.

De estos medios (radio, televisión) se informará a la población a través de las campañas de divulgación pre- vistas en la implantación.

c) Información a través de otros Organismos e Ins- tituciones.

Los diferentes Organismos e Instituciones remitirá a través de sus canales de información la información emanada de la Dirección del Plan a través de su Gabi- nete de Información.

4.1.4.- Control y neutralización de la inundación y/o avenida.

Ante el avance de las inundaciones por avenidas, la regulación de las mismas mediante embalses resulta una defensa muy efectiva de las inundaciones aguas abajo de los mismos, ya que con una buena previsión (desem- bales previos a lluvias muy intensas con escaso tiem- po de concentración en la cuenca) se puede laminar la punta del hidrograma de la avenida que provocaría la inundación.

En todo caso, independientemente de la posibilidad de regular las avenidas, el control de los niveles de se- guridad en los embalses es fundamental en los episo- dios de lluvias intensas y persistentes por el riesgo que entrañan, tanto para la seguridad de la propia presa co- mo por los niveles de inundación que se puedan gene- rar aguas abajo, ante repentinos desembalses para ga- rantizar la seguridad de presa.

Uholdeen ziozko larrialdietan, beraien ondoreak ukituriko aldeetan edo ukitu litezkeen aldeetan gutxienera ekartzeko, ekintza taldeek neurri eta ekintzak burutuko dituzte, planaren zuzendaritzaren bitartez eginda, eta ekintzok errazago bihurtu behar dute ubideak hustutzea, eta beraien aldameneko aldeak urez bete daitezzen galarazi behar dute; neurri horien artean, besteak beste, honako hauek daude:

- Behin-behineko eustarriak jasotzea, bai eta uren igaroa saihestu edo zailtzen duten bestelako oztopoak ere.
- Presaka, eustarrietan edota babeseko bestelako obretan egindako kalteak konpontzea eta, behar izanez gero, urboladak kontrolatzen dituzten izadiko osagaietan egindakoak ere.
- Ubideetako gune larrietan oztupo eta butxaketak kentzea edota urak hustutzeko beste bide batzuk zabaltzea.
- Ura hustutzeko beste bide batzuk eta ura banatzeko bideak zabaltzea.
- Uholdeek jotako komunikabide eta sarbideak garbitzea.
- Ukituriko aldeko garbiketa eta saneamendua.

4.2.- ERAGITEKO EGOERAK, UHOLDEEN ZIOZKO LARRIALDIK DAUDENEAN.

Eragiketak ezartzeko modalitateek behar adinako malgutasuna eman nahi diete eragiketei, larrialdietako gertakizunen eretzean (hidrometeorologiako gertakariaren edo berarekin loturiko jazoeren bilakaera gelditu edo bat-batekoa, baliabideak higitzeko gaitasuna eta abar).

Modu horretara, egoera batzuk gerta daitezke, zientetan, plana behar bezala piztu behar izan ez arren, dela orokorrean, dela arloka, Euskal Autonomia Erkidegoko egitura arruntaren arreta beharrezkoa baita; egin eginean ere, ondorio horietarako, egitura hori eragiteko taktiken bitartez egiten da.

4.2.1.- Eragiteko taktikak, uholdeen arriskuaren eretzean.

Uholdeen ziozko plan berezi hau behar ez bezala ezartzea honetan datza: arriskuak sortarazi baina astunak ez diren alerta eta larrialdiak kudeatze horretan, zelan eta uholde arriskuari dagokion eragiteko taktika piztuaz.

Eragiteko taktika horiek Larrialdiak Kudeatzeko Legearen III. kapituluko jarduketa protokoloak dira; izan ere, protokolo horiek araututa daude lazeriakoak ez diren larrialdiak kudeatzeari buruz, eta beraiek gertatu eta ezartzeko oinarriko irizpideak lege horren 26. artikuluan jasotzen dira.

Badira istripu-balizko batzuk uholdeen inguruan tipifikaturik; eta balizko horiek eragiketara taktikak gartu ahal dituzte, uholdeen ziozko plan berezi hau behar

En las emergencias por inundaciones con el fin de minimizar sus efectos en las zonas afectadas o que potencialmente sean afectadas los Grupos de Acción ejecutarán medidas y acciones, instruidas a través de la Dirección del Plan, que favorezcan desaguar los cauces e impidan anegarse las zonas próximas, tales como:

- Levantamiento de diques provisionales y otros obstáculos que eviten o dificulten el paso de las aguas.
- Reparación de urgencia de los daños ocasionados en diques y obras de protección y en elementos naturales que controlan las avenidas.
- Eliminación y limpieza de obstáculos y obstrucciones generados por la avenida en puntos críticos de los cauces.
- Apertura de vías alternativas de desagües y canales de derivación.
- Limpieza de las vías de comunicación y accesos afectados por desprendimientos.
- Limpieza y saneamiento del área afectada.

4.2.- SITUACIONES OPERATIVAS EN EMERGENCIAS POR INUNDACIONES.

Las modalidades en la aplicación de la operatividad intentan dar la suficiente flexibilidad a la misma en función de los contingentes de la emergencia (evolución lenta o súbita del suceso hidrometeorológico o de sus fenómenos asociados, capacidad de movilización de los recursos, etcétera).

De este modo pueden presentarse situaciones en las que si bien, no es necesaria la activación formal del Plan, ya sea global o sectorialmente, sí requieren su atención por parte de la estructura ordinaria presente en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que a estos efectos se realiza mediante las tácticas operativas.

4.2.1.- Tácticas Operativas relativas al riesgo de inundaciones.

La aplicación no formal del presente Plan Especial por Inundaciones se traduce en la gestión de las alertas y emergencias no graves que este riesgo pueda generar, a través de la activación de la táctica operativa correspondiente relativa al riesgo de inundación.

Estas táctica operativas son los protocolos de actuación que la Ley de Gestión de Emergencias contempla en su capítulo III sobre la gestión de las emergencias no calamitosas, cuyos criterios básicos de elaboración y aplicación los recoge en su artículo 26.

Los supuestos accidentales tipificados en el contexto de las inundaciones, susceptibles de desarrollar táctica operativa como actuación previa a la posible acti-

bezala piztu baino lehen jarduteko; bada, balizko horiek guztiak beraien taktikaren izendazioarekin batera erantsi den 4.1. laukiko zerrendan ageri dira.

Eragiteko taktika horietarik bakoitza plan sinoptikoa da; eta plan horretara gorabeheraren eta egoeraren eragileetarik bakoitza bilduko da (euriak, uharken gaztiguak, uholdeak...). Eragile horien arabera ezartzen da lehendaurrez zerbitzu batzuen multzoen (plan bereziko ekintza taldeen) jarduketa edo aurregaztigua, bai eta istripu-balizkoarekin zerikusirik duten pertsona eta agintariei eman beharreko gaztiguak ere, taktika horrek istripu-balizko horri erantzuna eman nahi dionez gero.

vación formal del presente Plan Especial por Inundaciones, se relacionan con la denominación de su táctica correspondiente en el cuadro 4.1 adjunto.

Cada una de estas tácticas operativas es un plan sinóptico en el que se recogen los diferentes factores condicionantes del incidente y su situación (lluvias, avisos de presas, inundaciones...). En función de estos factores queda preestablecida la actuación de un conjunto de servicios (grupos de acción del Plan Especial) o su preaviso, así como los avisos a las personas y autoridades implicadas con el supuesto accidental al que la táctica pretende dar respuesta.

Gorabehera	ERAGITEKO TAKTIKA
Euri txarrak datozelako gaztigua	METEO
Euri setatsu edota bortitzak	EURIA
Uholdeak (uhandiak, urak biltzea, ubideak butxatzea...)	UHOLDE
Uharka eta urtegietako gorabeheren gertaguneen gaztiguak	PRESA
Lurraren egongaitzasunak (lurperak eta abar)	BA-4

4.1. laukia.- Eragiteko taktikak, uholdeen arriskuari dagozkionak.

<i>Supuesto incidental</i>	<i>TÁCTICA OPERATIVA</i>
<i>Aviso de lluvias adversas</i>	<i>METEO</i>
<i>Lluvias persistentes y/o intensas</i>	<i>EURIA</i>
<i>Inundaciones (riadas, embalsamientos, oclusiones de cauce...)</i>	<i>UHOLDE</i>
<i>Avisos de escenarios incidentales en presas y embalses</i>	<i>PRESA</i>
<i>Inestabilidades del terreno (Desprendimientos, etc.)</i>	<i>BA-4</i>

Cuadro 4.1.- Tácticas Operativas relativas al riesgo de inundaciones.

4.2.2.- Ezartzeko modalitateak larrialdi egoeraren arabera.

- Larrialdiaren aurreko aldia:

Aldi honetan ez da uholdeen ziozko plan berezia behar bezala pizten; hala eta guztiz ere, koordinazio zentroek alerta taktika egokia, Euria, ezarriko dute, prezipitazio bortitz edota setatsuengatik alerta dagoenetan; eta Uharka 1 ezarriko dute, uharkaren baten 0 gertagunea jakinarazi behar duenetan. Taktika horiek, 4.2.1.ean adierazi den bezala, larrialdiaren aurreko aldi horretan, gaztiguak igortzen dizkiete zerbitzu eskudunei eta ekintza taldeei.

4.2.2.- Modalidades de aplicación conforme a la situación de emergencia.

- Fase de Preemergencia:

En esta fase no se activa formalmente el presente Plan Especial ante inundaciones, si bien se aplicará por los Centros de Coordinación la correspondiente táctica de alerta, Euria en alerta de precipitaciones intensas y/o persistentes y Presa 1 en la notificación del escenario 0 en alguna presa. Estas tácticas, como se ha indicado en 4.2.1, transmiten en esta fase de preemergencia avisos a los servicios oportunos y a los grupos de acción.

- Larrialdiaren aldia:

Uholdeen ziozko larrialdia behin adierazita, eta, larrialdiaren astuntasunaren egoera kontuan harturik, 2.5.ean adierazitakoaren irizpideen arabera, ondoko modalitate hauek ezarri ahal dira, plan berezia ezartzeko:

- 0 egoera:

0 egoeraren astuntasun eta eragina 2.5.2.1ean adierazitakoaren arabera da; eta beraren jarraipena Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzuek egiten dute.

Kasu horietan, Larrialdiei Aurre egiteko Zuzendaritzak Uholde eragiteko taktika ezarri ohi du; hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen ziozko plan berezia behar bezala piztu ez arren, beraren eskuarte batzuk higitzen dira, laguntza eta jarraipeneko eginkizunak egiteko, eta alertak igortzen zaizkie ekintza taldeei, edo babes-neurriak prestatu.

